

JUANJO ALLUR

Deskribapena: Kikek jasotako erantzunetako bat post-it hori batean idazten du eta beste hainbat post-it dauden paretan itsasten du. Post-it horretan “Nekagarria da” testua irakur daiteke. Kikek laranja koloreko beste post-it batean beste esaldi bat idatzi eta pareta berean itsasten du. Post-it laranja horretan “Euskaraz zailagoa” esaldia irakurtzen dugu. Kikek more koloreko hirugarren post-it bat horman itsasten du eta bertan “Esfortzua eskatzen du” esaldia idatzita dagoela ikusten dugu. Itsatsita dagoen laranja koloreko beste post-it batean “Erdaldunek sortutako ohitura” esaldia irakur daiteke.

Juanjo Allur, Siadeco taldeko ikertzailea, Kikereren alboan agertzen da.

Juanjo: “Kike, zertan ari zara?”

Kike: “Kontxo, Juanjo! Ba begira, jendeak euskaraz ez egiteko eman dizkigun arrazoiak apuntatu ditut eta orain sailkatu nahian nengil. Zuk hontaz badakizu, lagunduko al didazu?”

Juanjo: “Bai, nola ez ba! Batzuk jaso dituzue, e?”

Kike: “Bai, pixkat denetatik dago, e.”

Juanjo: “Bueno, hasiko gara multzotan sailkatzen. Ba, esate baterako, “Zailagoa euskaraz” horren parean, ondoan jarriko nuke “Erosotasuna”.”

Deskribapena: Juanjok “Zailagoa euskaraz” testua duen post-it-a hartzen du hormatik eta “Erosotasuna” testua duenarekin multzokatzen du, paretaren beste toki batean itsatsiz. Post-it guztiak bi multzo handitan banatuta agertzen dira, paretan itsatsita.

Kike: Juanjo, eta arrazoi hauek zeren arabera sailkatu dituzu?”

Deskribapena: Juanjoren aurpegia erakustearekin batera, “Juanjo Allur, Siadeco ikerketa taldea” testua azaltzen da pantailan.

Juanjo: “Ba hemen ikusten duzun bezala, bi multzo nagusi egin ditut. Eta ezkerrean jarri ditut nolabait arrazoi indibidualak, norberarekin lotuta daudenak; eta eskuinean berriz, arrazoi sozialak, ingurunearekin, gizartearekin... lotuta dauden arrazoiak eta faktoreak izango lirateke horiek.”

Kike: “Hala ere, lehen multzo honetan arrazoi gehiago pilatzen dira, ez?”

Juanjo: “Bai, hor ikusten da orduan norberaren esku asko dagoela. Hiru zerrenda daude gainera, hiru azpi multzo. Eta lehendabiziko zutabearen zer daukagu?”

Deskribapena: Juanjok lehen zutabeko pos-it-ak ahots ozenez irakurtzen ditu, kamerak post-it bakoitzean idatzita dagoena erakusten duen bitartean:

Juanjo: ““Zailagoa euskaraz”, “Erosotasuna”, “Errazagoa erdaraz”, “Esfortzua eskatzen du”. Nik hori lotuko nuke euskaraz komunikatzeko gaitasunarekin.”

Kike: “Norberaren gaitasunarekin.”

Juanjo: “Norberaren gaitasunarekin: euskalduna bai eta elebiduna bai, baina askotan ez elebidun orekatua. Orduan, askotan esfortzu bat eskatzen du euskaraz aritzeak. Eta horrekin batera, “Ez da hizkuntza adierazkorra”.”

Deskribapena: Juanjok “Ez da hizkuntza adierazkorra” esaldia esaten duen bitartean kamerak post-it-a erakusten du lehen planoan.

Juanjo: “Hor badago beste elementu inportante bat, eta da eraginkortasun komunikatiboa. Alegia, komunikazioarekin lortu nahi dena lortzeko gaztelania hizkuntza eraginkorragoa dela pentsatzea. Bigarren zutabea daukagu “Borondate falta”, “Ez da ama hizkuntza”.”

Deskribapena: Juanjok “Borondate falta” eta “Ez da ama hizkuntza” post-it-ak ahots ozenez esaten dituen bitartean, kamerak bi post-it horiek erakusten dizkigu, horiei enfokatuz.

Juanjo: “Nik hori, dudarik gabe, hizkuntzarekiko motibazioarekin lotuko nuke. Lehen esan dugun zailtasun hori gainditu daiteke euskarekiko motibazioa oso altua baldin bada. Zer ari gara ikusten? Badela gizartean euskara ikasteko, jakiteko, motibazioa, askotan ez ordea euskara erabiltzeko motibazioa.

Eta hirugarren zutabea, bada finkatu gabeko hizkuntz ohiturak.”

Deskribapena: Juanjok azken esaldia esaten duen bitartean, kamerak hirugarren zutabea osatzen duten bi post-it-ak erakusten dizkigu. Lehen post-it-ean “Mintzakidea euskaraz hasten delako” esaldia dago idatzita, eta bigarrean “Ohitura” hitza.

Juanjo: “Egin beharreko galdera da hizkuntza ohitura horiek zergatik finkatzen diren eta zoritxarrez askotan zergatik finkatzen diren gaztelaniaren alde. Norbait ezagutzen dugunean, zein hizkuntza erabili, bata edo bestea, hautatzen dugu. Hizkuntza hautu hori oso denbora gutxian finkatzen da, eta behin finkatuta dagoenetik aurrera, ba automatikoki hizkuntza hautu hori...”

Kike: “...errepikatu egiten da.”

Juanjo: “...errepikatu egiten da.”

Kike: “Eta gero hor, bigarren multzo hori daukagu.”

Deskribapena: Kikek paretan itsatsita dagoen bigarren post-it multzoa seinalatzen du.

Juanjo: “Ingurunearen eragina agertzen da hor. Eta bigarren multzo horretan, lehen zerrenda: “Kalean erdara dagoelako”, “Inguruko eragina”.”

Deskribapena: Kamerak hormako post-it bat enfokatzen du eta bertan “Kalean erdara dagoelako” esaldia irakurtzen dugu. Horren ondoren, bigarren post-it-a enfokatzen du, eta bertan “Inguruaren eragina” irakurtzen dugu.

Juanjo: “Bueno zer da hori? Ba askotan euskararen presentzia, gizarte presentzia bajua. Horrekin batera, euskaldunak identifikatzeko arazoak. Teorian, eta inkesten arabera, kalean euskaldun asko dago, baina gero euskaldun horiek inbisibleak dira. Ez dakigu badiren ere, eta askotan ez dugu behar haina ahalegin egiten, badirela jakiteko ere. Beraz, kalean erdara nagusi izateak, hedabideetan erdara nagusi izateak, horrek eramaten gaitu askotan gaztelania erabiltzera.

Bigarren zutabe batean jarri ditugu komunikabideen eragina: “Naturalagoa da, futbolean adibidez”.

Deskribapena: Kamerak hormako post-it bat enfokatzen du eta bertan “Naturalagoa da (futbolean ad.)” esaldia irakurtzen dugu.

Juanjo: “Hemen badugu faktore arrazoi inportante bat, eta da hizkuntzaren prestigioa. Euskara, askotan, eremu formal jakin batzuekin lotuegia: eskolarekin, ikasi beharrekin, administrazioarekin... eta askotan ez horrenbeste beste eremu informalago batzuekin. Esate baterako lagunartean kirolaz hitz egiteko, eta asko hitz egiten da kirolaz lagunartean, eta horretarako “naturalagoa”, herritar horrek esan duen bezala futbolaz hitz egiteko, gaztelaniaz.

Gaztelaniaren prestigioa euskararen gainera egoteak esan nahi du, askotan, euskalduna, nahiz eta gehiago kostatu, prest dagoela erdaraz aritzeko.

Eta hirugarren zutabean, “Erdaldunek sortutako ohitura”.

Deskribapena: Kamerak hormako post-it bat enfokatzen du eta bertan “Erdaldunek sortutako ohitura” esaldia irakurtzen dugu.

Juanjo: “Bueno hau da fenomeno bat askotan errepikatzen dena: hiztun talde mistoak. Talde batean, gehienak euskaldunak izanda ere, bat euskaraz ez dakiena egotea nahikoa da ba erdaraz aritzeko. Eta prozesu horretan euskara galtzaile ateratzen da eta euskaldunok askotan euskararen erabilerari mugak geuk jartzen dizkiogu. Orduan hor askotan ez dugu asmatzen, e talde mistoetan, euskaldunak eta erdaldunak dauden taldeetan, euskara nola erabili, erabaki eta adosteko. Eta hor askotan estrategiak falta zaizkigu, eta pedagogia pixka bat ere bai esango nuke nik.”

Kike: “Juanjo, hala ere, jende askok hau entzun eta pentsatuko du “baina hauek zer dira, arrazoiak hala aitzakiak?”.”

Juanjo: “Kalean zuek galdera horiek egin eta erantzun horiek eman dituztenentzat aitzakiak ez, arrazoiak dira, eta nik halaxe tratatuko nituzke, arrazoi bezala. Guri tokatzen zaigu orain, arrazoiak diren neurrian, soluzioak eta konponbideak bilatzea eta horretan lan egitea.”